

Hiru egunez Guardetxeko eraikina okupatu du Donostiako Alde Zaharreko Gazte Asanbladak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 12/05/2024

Okupazio sinboliko honen bidez auzoarentzako espazio baten beharra seinatu zuten eta udal gobernuaren ordezkariari bilera bat eskatu zieten mezu argi batekin: "Guardetxeak auzoarentzat!".

Ostiraleko arratsaldean, hainbat gazte igo ziren Parte Zaharreko eraikinera okupazio sinbolikoan parte hartzera. Han hiru egunez egon dira zenbait egitarauak aurrera eramanez, auzolanak, hitzaldiak, proiektzioak, musika, mobilizazioa eta txokolate jana, besteak beste. Han egindako prentsaurreko batean adierazi zuten AZGAK aspaldi abiatu zuela espazio bat lortzeko borroka, Uxotegi, Kijera gaztetxea eta aurretik egindako beste hainbat eraikinen okupazioak oroituz. Ordea, gaur gaurkoz, oraindik, "espaziorik gabe" jarraitzen dutela deitoratu zuten. Egoera honen aurrean Guardetxea urte luzez izan dela "auzoko eta Donostiako gazte ugariaren erreferentziazko elkargunea, bai eta modu asanbleario eta autogestionatu batean hamaika proiekturi bizia eman dion lekua", nabarmendu zuten gazteek. Era berean, "Auzoko eta Donostiako gazteok ditugun behar ugari asebeteko lituzke espazio honek, eta AZGAtik prest geundeke esleipen baldintzak adosteko" adierazi zuten. Horregatik udal gobernuaren ordezkariari bilera bat eskatu diete mezu argi batekin: "Guardetxeak auzoarentzat, eta bereziki auzoko gazteontzat izan behar du!".

[twitter:twitturl:<https://x.com/AZgazteak/status/1788985244072177744>]

Larunbatean indar errepresiboen partetik jazarpena pairatu zuten gazteek, izan ere, ertzainek Guardetxera joan ziren barruan zeuden gazteak identifikatzen saiatzera. Ez zutenez lortu, inguratu zen gazte bat identifikatu ostean alde egin zuten.

<https://eh.lahaine.org/hiru-egunez-guardetxeko-eraikina-okupatu>